



¿Zer da X-evian?

[WWW.X-EVIAN.ORG](http://www.x-evian.org)

<http://metabolik.hacklabs.org>

X-Evian Debian GNU/Linux banaketa autoabiarazgarri eta autoinstalagarri bat da

X-Evian *Live-CD* bat da, hau da CD-ROM batetik RAM memoriara hardware igarle automatiko baten bidez instalatzen den sistema eragile oso bat da. Honek ordenagailu batetan inongo aztarnarik utzi gabe erabiltzea ahalmentzen du, bertan instalaturik dauden sistema eragile eta fitxategiekin harremanik eduki gabe. Honetaz gain X-Evianek disko gogorrean CD-aren edukia instalatzeko aukera ematen du (Windows ezabatu gabe).

Debian GNU/Linux sistema eragile bat baino askoz gehiago da: Linux Kernel (muina) inguruko programa instalazio eta kudeaketa sistema bat da Debian GNU/Linux 10.000-tik gora programa desberdinez osaturik dago, ia denak soft librean, sailkaturik eta integraturik funtzionatzeko prest. X-Evian erabiltzaile aktibisten beharretan, teknologikoki etasozialki libre den kultura sortu, pentsatzen eginiko aukeraketa eta pilaketa bat da. Baina Debian "sistemaeragile osoa eta software pilaketa bat" baino askoz gehiago da. Debian da sareko software libre aldeko komunitate handiena eta proiektu teknopolitiko finkoenetako bat da. X-Evian proiektu honetako baliabide garrantzitsuenez baliatzeko era erraz eta aurrekonfiguratu bat da.

<http://www.debian.org>
<http://www.gnu.org>
<http://www.kernel.org/>

X-Evian copyleft erakoa da: jakintza librearen emaitza bat da, ezagutza autoantolatuen birkonbinatutako produkzio bat

Birkonbinazio, erreproduzio erretransmisio digitalek, ezagutzaren (materiagabekosareen langileak) zeharkako auto-antolakuntza bat sortzeko aukera eman du. Baina taldearen lana defendatuko zien formatu bat gabe zeharkako antolakuntza ez zen posible izango: Copyleft. "Copyleft-ak copyright-aren legeak erabiltzen ditu baina itzulbiratuaz sortu

zirenerako kontrako helburuak bete ditzaten: softwarea pribatizatzeke era bat izan beharrez software librea mantentzeko era bat bihurtuaz. Copyleft-aren ideia nagusia mundu guztiari programa erabili, kopiatu, eraldatu eta eraldatutako bertsioak banatzeko aukera emateko da, baina honi ez beste huez gain murrizketa bat jartzeko " Stallman, R. (<http://www.gnu.org/gnu/thegnuproject.html>).

Copyleft-ak copyright-aren zuzenbide sistema hackeatzen du, jakintza eta tekniken askatasuna aldarrikatzeko. X-Evian jakintza hauen birkonbinatze eta eraldaketa bat da. Beraz X-Evian kopiatu, banatu, eraldatu, birkonbinatu (beti eta eraldaketa hori libre den bitartean) eta libreki erabili daiteke.

Baina ez da Software-a copyleft izan daitekeen bakarra: X-Evian osatzen duten diseinua, irudiak, testuak, dokumentazio teknikoa, musika eta bideoak ere libreki dira. X-Evian era honetara "infrokapitalismoaren" jakintza eta teknika murrizpenetik eta hauen produkzio eta kontsumo sareetatik (fabrikak, enpresak, zentro komertzialak, etab.) kanpo dagoen materiagabeko produkzio ziklotan sartzen da. Materiagabeko produkzioa ez da garapen-produkzio-salmenta-kontsumo zikloaz baliatzen, proiektu kolektibo eta pertsonetan (X-Evian, Metabolik, Hacklabak, Sindominio, Debian, Linux, etab.) oinarritutako garapen-erabilera-garapen ziklo interaktiboetan baizik.

Honegatik X-Evian Software libretik eredu teknologiko, kulturak eta sozial ezberdin baten, non produkzioa eta erabilera merkatu interfazetik, patenteek murriztutako garapenetik, interes komertzialetatik eta teknologiaren erabilera kontsumistatik kanpoko komunitate kooperatibo horizontaletan elkartzen diren, aldeko garapen eta esperimendazio komunitate bat da ere.

<http://www.gnu.org/copyleft>
<http://copyleft.sindominio.net>
<http://rekombinant.org>
<http://creativecommons.org>

X-Evian "desobedientziarako" tresna hacktibista bat da

X-Evian desobeditze keinu bat da, kapitalismoaren portamolde kode diren kopia murrizketa, produkzio kompetitibo eta kontsumo indibidualista gure gorputzetan tatuatzen dituen munduaren aukakoa. X-Evianek teknologia eta harreman sozialak beste portamolde posible batzuen kontzientzia zabaltzea bilatzen du. Autoinstalaketaz baliaturik X-Evian ekintza teknopolitikoetarako lanabes bat da,

desobeditze zuzen ekintzatarako gailua: X-Evian CD-a erabiltzailearekiko harremanetarako interfaze teknokapitalistak (Microsoft Windows, Explorer, etab.) ezartzen dituen erabilera publikokoedozein ordenagailuetan instalatzeko erabili daiteke. X-Evianez baliatzen erabilera publiko/instituzionaleko ordenagailuak, instituzio publiko eta teknokapitalismo harremanek sortzen duten sakoneko gatazka ageria utziko duen desobeditze teknopolitiko prozesu batez: Jabetza kapitalistak inposaturiko eta publikoki subentzaturiko *general intellect*-aren (jakintza eta harreman kolektiboaren jatorria) lapurreta eta komunikazio kontrol soziala.

Desobeditze mota honi eta kodeteknologikoen berjabetza sozialerako beste eraldaketa etamugimendu taktikoei hacktibismoa deritzogu: Teknologikoki ezarritako botere sareek mediatizatutako ekintza, harreman eta interakzioaren nahasmena.

<http://suburbia.sindominio.net>
<http://www.critical-art.net>
<http://hactivist.com/>

X-Evian autonomia digitalerako lanabes eta aktibismo sozialarentzat ziberespazioarekiko konfiguratutako interfaze bat da

Erabiltzailearen ikuspuntutik, X-Evian autonomia digitalerako lanabes bat da: dituen programa, errezeta, ideia eta material libreez testu (abiword), audio (audacity), bideo (cinelerra) etairudi (gimp) autoedizio digitalerako prestaturik. Asmoa X-Evianek guztizko multimedia lanabes batzuen bitartez erabiltzaileei bere sormenak editatu eta argitaratzeko ahalmena ematea da: konfigurazio, iragazketa eta difusio pribilegioak batzen dituzten bitartekoez libre dagoen harremanetarako ater irekitzea. Baina disko gogor batetan isolaturiko sormenak ez du balore sozial, polito edokulturalik. X-Evian sormen horien zirkulazioak sustatu nahi ditu, horretarako zirkulazio eta kooperazio sare hedatuagoetan sarrera behar du. Internet arakatzzailearen laster-marken aurre-aukeraketaren bidez, X-Evianek bere erabiltzaileak ziberespazioaren gune jakin batetan ipintzen ditu. Era honetara X-Evian hacktibista eta mediaktibista lan eremuekiko interfaze bateratu (arakatzzaileak, kriptografia, laster-markak, eskuliburuak, erreferentzia, etab.) bat da.

X-Evian azken aldiari harigabeko sareenteknologia esperimendarioari eta sare hauek sormen eta kudeaketa komunitateari esker sortutako harigabeko saremetropolitarrerara (edo wireless komunitate) konektatzeko pentsatuta dago. Harigabeko sare txartel bat baduzu, X-Evianek sare hau eta beste batzuen bila frekuentzia espazioa arakatzeko aukera ematen dizu.

<http://euskalherria.indymedia.org>
<http://www.hacklabs.org>
<http://www.bilbowireless.net>
<http://www.wirelessanarchy.com/>

X-Evian teknopolitika da: tekniko eta sozialaren arteko aliantza bat da

Gaur egun oso erabiliak diren "informazio gizarte", "jakintza gizarte", "TIC (informazio eta komunikabide teknologiak) gizarte" terminoak, gaur egun eraturiko gizarte teknoinformagarri eta jakintza fundamentuakazaltzen dituzte. Teknologia aurre-ezarritako mugetara egokitze arrazional eta bere eremu teknikoa gainditzeko ez duten aplikatutako ezagutza (tekniko) sare bat izateaz utzi du. Gure gizartean teknologia teknopolitika bezala agertzen da: gure inguruko ensamblaje tekniko guztietan botere erlazio ezagutezinak sortzen duten Komunikazio eta elkaeragin muina. X-Evian politiko-sozial eta teknikoaren arteko jakindako hitzarmen bat da.

ZSOA-etan (Zentro Sozial Okupatua Autokudeatua) sortutako eta erresistentzia globaleko zirkulazio sortutako aliantza. Zehatz-mehatzki Udonodoko gaztetxeo ZSOA-ko hacklaboratorioaren (Metabolik BioHacklab) proiektu bat da, 2003.an Evianen izandako G8 gailur-contrako sarearen makinak hornitu eta elkarkonektatzeko beharra zela eta sortu zen.

X-Evian bera ez da helburu bat, X-Evian ez da jakintzaren lanak (programadore, idazle, sistema kudeatzaile, etab.) CD baten idatziriko 0 eta 1 pilaketa egiteko sortu. X-Evianek lan hori bere buruaz harago muga duen mugitzeko medio bat da, Merkatu egitura, instituzio militar eta korporazio multinazionalak sortutako gatazkaren atzen dauden posible diren mundu horietara. Alderdi honetatik X-Evian ez da tekniko aldetik eta tekniko alderako sortutakoa, baizik eta gizarteak gizartearentzako sortutako zerbait da: sormen eta erresistentzi autono sozial errealitate guneak bateratzeko lanabes bezala.

<http://sindominio.net/udondogaztetxea/>
<http://metabolik.hacklabs.org>
<http://sindominio.net>

Lortuzazu zure X-Evian

X-Evian SourceForgen dago eskuragarri. Beraz, ISOa bertatik jaitsi dezakezu eta zure X-Evian-eko kopia CD batetan txingortu. CDa horrela lortu ezin baduzu, gertuen daukazun hacklabera jo dezakezu edo mezu baten bidez X-Evian-eko lan posta zerrendan laguntza eskatu dezakezu.

<http://sourceforge.net/projects/x-evian/>

Copyleft 2004 Metabolik BioHacklab: **Copyleft** 2004 Metabolik BioHacklab: Este texto está bajo licencia Creative Commons "Attribution-NoDerivs-NonCommercial 1.0": Eres libre de copiar, distribuir, poner a disposición y ejecutar esta obra bajo las siguientes condiciones: la autoría de la obra debe ser respetada, no puedes usar la obra con fines comerciales, no puedes alterar, transformar ni construir sobre esta obra. Además cualquier reutilización o distribución de este texto debe hacer explícitos los términos de esta licencia. Cualquiera de estos términos de licencia pueden ser revocados con permiso del autor. Esto es una nota orientativa de la licencia original completa que puede encontrarse en: <http://creativecommons.org/licenses/by-nd-nc/1.0/legalcode>

El uso estratégico de la legislación de copyright para darle la vuelta y permitir la libre circulación de la información en ningún modo refleja la aceptación o el respeto de esta legislación por parte de Metabolik BioHacklab.